



2024rako aurrekontuak onartu dira

Udalbatzak aho batez onartu zituen, joan den abenduaren 19an, 2024rako udal aurrekontua. 4.190.826 euroko eginen ditu; 2023koen oso antzekoa da (zertxobait txikiagoa).

Aurrekontuen kopuru garrantzitsu bat, 1.062.890, inbertsio errealetarako izanen da da. Horien artean honako hauek aipatzekoak dira: Batetik, Merkatuko plazari atxikitako orubea erostea, 180.000 euroko gastua ekarriko duena. Udal plan berrian integratutako espazioa da, eta Agoitzek publiko eta zuzkidurazkoa egin nahi du. Bestetik, inbertsioen kapituluan 40.000 euroko bi partida daude ere, bat altzari-parkea berritzeko eta beste akitaldietarako eta eszenatoki kirako karpa bat erosteko. Horiez gain, 50.000 euro bideratuko dira kirol-instalazioetako aldagelak

eraberritzeko. Inbertsio horiek guztiak Udalak eta Nafarroako Gobernua adostutako urte anitzeko planaren partidari esker eginen dira, Itoizko urtegia eraikitzearen ondorioengatik herria eta eskualdea konpentsatzeko.

Kapitulu berean ere honako esku-hartzeak daude: Zalurribarko San Salvatore monasterioaren aurriak balioan jartzea; partidak 18.091 euroko zenbatekoa du. Agoitz-Longidako Iratiko Natur Bideko kiribila (14.993 euro) egitea. "Orkideadun lorategiak" izeneko proiektua ere inbertsio gisa jasota dago, eta 36.000 euro bideratuko dira horretarako. Aipatutakoez gain, 12.000 euro bideratuko dira Agoizko udal barrutiko zenbait ibilbide seinalezatzeko. Beste 26.320 euro ezarri dira "Agoitz, soinu-paisaiak" proiekturako.

30.000 euro ere, Kanpondoa kirol-gunean bizikleta elektrikoen zentro bat egiteko. Adierazitako azken inbertsio horiek Pirinioaurreko eta Zangozako eskualdearen eta Europako funtsetako UGETren (Nafarroako Turismo Gunea Kudeatzeko Unitatea, 2024) arteko hitzarmenaren menpekoak dira (144.865 euroko).

Inbertsioen kapituluan ere esku-hartze gehiago daude. 60.000 euro erabiliko dira, San Migel ikastetxe publikoaren itxitura perimetrala aldatzeko. Nabarmentzekoa da Iturzarrea plazan estalkia instalatzeko ezarritako partida, 325.000 eurokoa (espazio publiko horretan merkatua dago astean bahi, eta horri aterpea emateko balioko du). Estalkia etorkizunean aprobetxatuko da, plaka voltaikoak jartzeko.



Azkenik, kapitulu berekoa da Agoizko Udalak 2024an PAMIF-a, suteen plana, egiteko ezarritako partida, 6.710 euro.

Gastuen kapituluan, berriz, eta zehazkiago langileen lansariei dagokienez, 946.132 euroko partida ezarri da. 2023ko aurrekontuekin aldaratuta, 39.000 euro gehiago dira; izan ere, plantilla organikoa

aldatu eta, Udalak administrari ofizial plaza bat (lan-kontratu finkoa) oposizio-lehiaketa bidez betetzea aurreikusita dago. Urte hasieran egingen da deialdia, eta ohiko hedabideetan zabalduko da.

Gastuen atalean ere, bada igoera izan duen beste partida bat, jaietako eta Gabonetakoa. 110.000 eurotik 130.000 eurora igo baita.

Tasen eta prezio publikoen kapituluak, aldiz, ez du aldaketarik izanen, eta pasa den urtean bezala mantenduko dira zenbakiak. Onartu berriko udal aurrekontuetan 300.000 euro esleitu dira Kanpondoko aurrekonturako (582.000 euroko zenbatekoa du). Bukatzeko, Musika eskolarako 90.000 euro ezarri dira (192.000 eurokoa horren da aurrekontua).

Alde Zaharrera sartzeko pibote sistema automatikoa izanen du Agoitze



Agoizko Udalak 46.245,18 euro, BEZik gabe, inbertituko ditu herriko alde zaharrerako sarbideetan kontrol-sistema bat ezartzeko. Pibotez osatutako sistema automatikoa izanen da, bakarrik auzokoei, negozioei eta zamalanak egiten dituztenei sartzeko aukera emanen diena. Construcciones Leache herriko enpresak egingen ditu lanak, bi jarduketatan banatuta, Irigoien kalekoa eta Larrainetako kalekoa hain zuzen ere.

Agoizko Udala duela zenbait urtetik ari da arautzen herriko Alde

Zaharrean ibilgailuen zirkulazioa, 2019an onartutako "Agoizko udalerriko ibilgailuen trafikoari" buruzko Ordenantzak jasotzen duen bezala. Araudi horrekin batera, hainbat lekutan jarritako seinaleen bidez argi adierazita dago Alde Zaharreko zenbait kaletara sartzeko dutela soilik ibilgailu baimenduek, egoiliarrek eta unean uneko zamalanetan aritzen direnek.

Neurri horiek ez direnez beti behar bezala betez, Udalak erabaki du pauso bat harago joatea

eta pibote automatiko pneumatikoak jartzea Irigoien eta Larrainetako kaleetan. Hurrengo faseetan, udalerriko beste eremu batzuetan ere egingen da jarduera.

Urrutiko agente bidez aktibatuko dira pibote automatikoak. Eta Agoizko Udalak erabakiko du nola erabili eta banatu herritarren artean.

Udal taldeak proiektua defendatu du, alde zaharra berreskuratzeko funtsezkoa eta herritar guztiengatzat onuragarria izanen delakoan.

Pilotalekuko haur parkea berritzeko lanak abian

Toki Eder pilotalekuaren kanpoaldean dagoen haur parkea berritzeko obrak esleitu dira, dagoeneko. Maderplay arduratuko da proiektua aurrera ateratzeaz, eta, horretarako, 25.000 euro, BEZik gabe, izanen ditu.

Familiak egindako eskaeren ondorioa da haur parkearen berritzea. Izan ere, lekua bat udal pilotalekuaren ondoan dago, eta aisialdirako gune zabala eta segurua gertatzen denez, herriko familia eta txiki asko joaten dira bertara.

Agoizko Udalak azaldu duenez, "parke hori eraberritzeko beharra zegoen, leku horretan zeuden jolas-azpiegiturak zaharkituta eta oso hondatuta zeudelako".

Parke berriaren egokitzapenak irudimena sustatzeko hainbat elementu izanen ditu, erabiltzaileen arteko diskriminazioa ekiditea hel-

buru duena. Diseinu-proposamena hainbat elementu osatzen dute, eta horiek elkarren artean erlazionatuta daude, eginak dauden materialei, formei eta akaberei esker.

Jolasguneak hartzen duen espazioan jarduteaz gain, eremua zabaldu nahi da, eta gaur egun inguruan dauden beste elementu

natural batzuk integratu. Zehazkiago, belardian jarri nahi dira zenbait elementu eta jolasaren parte izan daitezkeen beste batzuk kontserbatu ere.

Instalazio berri horien bidez, herriko eremu horretara joaten diren familiei erantzuna eta zerbitzua emanen zaie.



Aeroterminia sistema berriak

Agoizko Udaleko osoko bilkurak hiru udal eraikinetan berokuntzarako sorgailu termikoak berritzeko lanak egiteko esleipena onartu

zuen. Udalak, haur eskolak eta Gizartetxeak aeroterminia sistema berrituko dute, egungo gasolio galdararen ordez bero-ponpak

jarriz. Esku-hartze horiek galdera-gela egokitzea, lehendik dauden instalazio hidraulikoa eta elektrikoa eraberritzea eta kontrol eta erregulazio sistema bat instalatzea ere badakarte. Beroa Estella, S.L. lizitatzaileak egingen ditu obrak, guztira 309.000 euroko zenbatekoan, BEZik gabe (Udala 133.000 euro, haur-eskola 121.000 euro eta Gizartetxea 55.000 euro, hurrenez hurren).



Partida hori dirulaguntzarekin estaliko da, Nafarroako Gobernuoko Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiaren kargura, Itoizko eraikuntzak eragindako udalekin egindako hitzarmenaren bidez.

Udal txiki berria eratu da

Urtea amaitzear zegoela, Agoitzek korporazio txikia aukeratu zuen, eta horrek protagonismo aktiboa izanen du 2024. urte osoan. Bere zeregina ez da mugatuko jailetako Haurren Eguneko zereginetara, baizik eta zabaldu urtean zehar udal agendako ekitaldi ofizialetara (jaiegunetakoak edo herrikoiak).

Bi hizkuntza ereduak (euskara eta gaztelania) Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek, ohi bezala, Udal txiki berria aukeratzeko bozketa egin zuten, eta urte osoan

zehar txikiak ordezkatuko dituzte hainbat ekitalditan, aurreko udalbatzek egin duten bezala.

Aitor Ugalde Larreak Oihan Capel Gaston alkate txikiaren lekukoa hartuko du, eta datorren urte osoan zehar alkatetza izanen du. Honako hauek dira korporazio txiki berriko gainerako zinegotziak: Saioa Baztan Carreras, Omar Omar Mohamed Ali, Martxelo Tellechea Blasco, Daniel García Jiménez, Fermintxo Tellechea Iturain, Mahfud Omar Mohamed Ali, Xubane Huarte Ayanz, Leo Afonso

Crespo, Mohamed Khaled Aljabra, Aitor Morillo Zunzarren. Guztiek ilusio handia eta herrian paper aktiboa hartzeko ideia dute.

Udal berriaren Eguberrietan estreinatu da. Olentzerori eta Errege Magoei egin zieten harrera. Baina udalbatza ez da festara mugatuko; aitzitik, urte osoan zehar auzo-gaiak eztabaidatuko ditu, interes komuneak, bilkura praktikoekin eta osoko bilkura ofizialarekin, eta mozioak egingen dira. Udalak bideragarriak direnak artatuko ditu.



Batxilergoa, Irunberriko IKn

Nafarroako Gobernuak baimena eman du Irunberriko LHko ikastetxe integratua eraberritzeko obrak kontratatzeko, ikastetxeko eraikin batean Pirinioetako ikasleentzat Batxilergoko ikasketak egiteko. Jarduketa honetarako aurreikusitako gehieneko gastua 6.028.546,03 eurokoa da, BEZa barne, eta duela gutxi arte bizitoki izan zen eraikinaren birgaitze integralari dagokio.

Eraberritzea eraikina honako erabilerearako egokitzean datza: Irun-

berriko Lanbide Heziketa Zentro izanen da eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxea ere. Zentroan hainbat gradu, erdi eta goi mailakoak, eta Batxilergoa egiteko ikasgelak eta tailerrak egokituko dira. Eraberrituta, Sukaldaritza eta Zaharberitze zikloak erdisotoko solairuan kokatuko dira. Beheko solairuan, berriz, gorputz eta kirol jarduerak egiteko gelak egonen dira. Azkenik, goiko bi solairuak Batxilergorako erabiliko dira. Lehenengo solairuan liburutegia, laborategiak eta tailerrak egonen

dira, eta bigarrenetan, berriz, ikasgeletarako.

Eraikinak, birmoldatu ondoren, 2.938 m²-ko azalera hartuko du, 4 solairutan banatuta: erdisotua (751), baxua (1027), lehena (580) eta bigarrena (580).

Obrak bi fasetan egingen dira, eraikina gaur egun erabiltzen ari baita. Lehenengo fasean, lehenengo, bigarren eta beheko solairuetako barrualdea eta inguratzaila eraberrituko dira, energia hobetzeko.

Bigarren fasean, erdisotoko solairuan eta beheko solairuko parte batean jardunen da. Bi jarduera horien bidez, irakaskuntza espazio

moderno eta funtzional berriak eraikitzeaz gain, irisgarritasun arazo guztiak konponduko dira, eta energia aldetik oso eraginko-

rrak diren inguratzailak sortuko dira, sistema arkitektoniko pasibo bidez energia hobeto aprobetxatzeko.



"UKIGUNE", ezinezko topaketen aldeko apustua

Azken asteetan, Gurutze Gorriak ezinezko topaketetan oinarritutako sentsibilizazio-proiektu bat gauzatu du. Agoitz izan da dinamika horiek ospatu diren herrietako bat. Jarduera honen helburua elkarrizketarako guna informalak sortzea da, herrialde desberdinetako bi pertsonaren artean. Pertsona horiek denbora espazio desberdinak bizi dituzte, eta beren errealitateak hurbildu nahi dituzte. Agoitzen zortzi pertsonak hartu dute parte, 6 emakume eta 2 gizonek. Horietako lau Marokotik, Errumaniatik, Portugaldik eta El Salvadorretik etorri dira. Topaketa horietan hainbat gai jorratu dira, eta arreta migrazioan jarri da, baina betiere migrazioaren eta bertakoen bizipen eta esperientzia pertsonaletatik abiatuta.

Elkarrizketak bideon grabatu ziren, eta laster emanen da horren



berri, urrats bat harago joateko eta hurbiltasunetik eta egiatik ahalik eta jende gehienarekin konektatzeko. Esperientziak partekatzea, zureak ez diren errealitateak ezagutzeko eta uste dugun bezain desberdinak ez garela ulertzea da jarduerarekin lortu nahi duen helburuetako bat. "UKIGUNE:

Topaketa gertagaitzak" ekimena Nafarroako Gobernuak finantzaturako "Errealitate berriak" proiektuaren parte da. Proiektu horren bidez, gizartea sentsibilizatu eta errealitate eta esperientzia desberdinak hurbildu nahi dira, bai eta migrazioarekin laguntza eman eta gizarteratu ere.

Eskola-jazarpenera prebenitzea eta kudeatzea



Hezkuntza Departamentuak tresna berri bat du eskola-jazarpenera edo -ziberjazarpenera prebenitzeko eta modu zuzenago eta eraginkorragoan aurreratu egiteko. Convivencia a.educacion.navarra.es webgunea da. Bertan, hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsona guztiak (ikasleek, familiak, guraso elkarteak, ikastetxe zuzendaritzak eta abarrek) Hezkuntza Departamentuko Bizikidetzaren Aholkularitzari bullying- edo ziberbullying-egoeren berri eman diezaioke, kudeaketa azkar eta egoki baterako. Zuzer

neko arreta horri esker, hezkuntza eremuan sor daitezkeen bizikidetzaren gatazkak zuzenean eta autonomia handiagoz kudeatu ahal izanen dira ikastetxeetan.

Webgune berrira Hezkuntzako atari nagusiaren bidez ere sartzea dago, eta komunikazio eta informazio kanal zuzena eta erraza da. Haren helburu nagusia da berdin arteko tratua onartzea eta arreta ematea ikastetxeetako bizikidetzaren eragotzen duten kasuetan, online edo telefono bidez. Era berean, webguneak lan egiteko

erabiltzen diren hezkuntza protokolo guztietara sartzeko aukera ematen du.

Era berean, jardunbide egokiak partekatu ahal izanen dira, eta era guztietako baliabideak eta materialak eskuratu (bideoak, bibliografia, etab.). Halaber, haren bidez, hezkuntza sozio-emozionaleko Laguntza programa ezagutarazten da (estatuko profesionalak eta espezialistek sortua eta aitzindaria), eta ikastetxeen autonomia bultzatzen da, haien esku-hartzei buruzko materiala, legeria eta datuak eskainiz.

Web guneak esku-hartzeko eremuak zuzen eta antolatzen ditu: bizikidetzaren eta ziberbullying-egoeren berri eman diezaioke, kudeaketa azkar eta egoki baterako. Zuzer

Nafarroako Osasun Departamentuak genero-indarkeriari buruzko baheketa bultzatuko du herritarren artean

Osasun-zentroek, osasun mentaleko sareko zentroek, Sexu eta Ugalketa Osasunari Arreta emateko Zentroek (CASSyR) eta Arrisku Handiko Haurdunaldien Kontsultak (CARO) 15 urte edo gehiagoko emakumei zuzendutako emakumeen aurkako indarkeria goiz detektatzeko protokoloa ezarriko dute Nafarroan. Zehazki, galdetegi bat egiten zaie. Galdetegi horren eraginkortasuna beste autonomia-erikidego batzuetan baliozkotu da, eta hiru indarkeria-motak biltzen ditu: fisikoa, psikologikoa eta sexuala. Zentro horietako langileek hiru galdera erraz egiten dizkiete zentro horietara joaten diren

emakume guztiei, bikotekidearen edo beste pertsona garrantzitsuen baten eskutik tratua txar emozionalik, fisikorik edo sexualik jasan duten jakiteko. Galdetegi 2 urtean behin errepikatuko da. Tresna hori ebidentzia zientifikoa, esperientzia eta autonomia-erikidegoetako osasun-zerbitzuen artean ikasitako eta partekatutako ikasgaietan oinarrituta eratzen da, Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Kontseiluaren (CISNS) Genero Indarkeriaren aurkako Batzordearen lan-esparruan.

Protokoloa 2024ko urtariletik aurrera ezarriko da osasun zen-

troetan, osasun mentaleko sarean, Sexu eta Ugalketa Osasunari Arreta emateko Zentroetan eta Arrisku Handiko Haurdunaldien Kontsultak Zentroetan, emakume guztientzat iragarriak direlako. Emakume guztiak joaten dira bertara bizitzeko une batean edo bestean, eta zuzeneko eta etengabeko harremanetarako aukera ugari dituzte. Horietan konfiantzarako harremanak ezartzen dira profesionalen eta artatutako pertsonen artean, eta askotan profesional horiek dira indarkeria egoeran dauden emakumei laguntzen dieten lehenak. Era berean, familientzako arretan inplikatu daude.

Agoitz, Palestinarekin

Agoizko Udalak, EH Bilduren udal taldearen ekimenez, herri palestinarren aldeko mozioa onartu zuen. Harekin, Gazako Zerrendaren eta Palestinako lurralde guztien gaineko bonbardaketak behin betiko etetea eskatzen da, baita laguntza humanitarioaren sarrera bermatzea eta korridore humanitarioak berehala irekitzea ere. Gainera, mozioak jasotzen du premiazkoa dela elkarriketa prozesu bat abian jartzea, Israelen okupazioa eta Palestinako Estatua aitortza bermatzeko. Gainera, testuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio lurralde palestinarrean jarduten duten erakunde eta organismoekin lanean jarraitzeko eta indarrean dauden lankidetzaren proiektuei eusteko. Halaber, Palestinako herriari laguntza humanitaria bermatzeko erreferentziarako UNRWA agentzia ere babesten du.



BESTE EKINTZA BATZUK. Agoizko Udalak boikot, desinbertsio eta zigor mugimendua (BDS) gonbidatu zuen, Palestinako egoerari eta egungo apartheid egoerari buruzko hitzaldia emateko. Nasser Salahk eta Txuri Ollok, gainera, BDS kanpaina zehaztu zuten, Palestinako herriaren zapalkuntzari nazioarteko babesa emateko eta Israeli nazioarteko zuzenbidea bete dezan presioa egiteko. Gainera, Agoizko gizarte, kultura eta

kirol arloko hainbat taldek, Udalarekin batera, herri ekimen batean parte hartzen dute, mediku taldeei baldintza duinetan lan egiten jarraitzeko eta Palestinan premiazko premia humanitarioak asetzeko aukera emanen dien dirua biltzeko. Horretarako, laguntza ekonomikorako bonu batzuk jarri dira salgai Kanpondoan. Bonu horiei esker, gainera, bi saski zozketatuko dira, tokiko kolektiboek emandako materialarekin.

Olentzero ezagutzeko ipuina

Olentzero, Eguberri bezperan urtero gure herrira etortzen den ikazkina, ezagutarazteko asmoz, Taupadak Agoizko Haur Eskolako kudeatzaileak, "Olentzero Agoitzen" ipuina argitaratu du. "Bizi dugun aniztasun kulturala gero eta handiagoa da, eta, beraz, gure ikasle guztiek Olentzero ezagutzaren garrantzia ikusten genuen hezkuntza-taldean", azaldu du Taupadak-eko kide batek, Joseba Corerak. Hainbat hilabeteko lana, hausnarketak eta proposamenak behar izan zituzten proiektua itxi arte. Modu egokian egindako lan pedagogikoarekin, 0 eta 100 urte bitarteko haur guztiei Olentzero nor den, ikazkin ospetsua, modu grafiko eta errazean jakinarazteko abentura murgildu ziren. "Oso aberasgarria izan da talde osoaren artean partekatzea orainaren eta

etorkizunaren belaunaldiari transmititu nahi geniona, gure ohiturak eta kultura islatzea, eta modu inklusiboan ezagutaraztea", gehitu du Garazi Labianok.

Hezkuntza-taldearentzat, ipuin hau tresna garrantzitsua da, Olentzeroren figura aurkezteko balia-



garria izateaz gain, haur bakoitzak Gabonetan erakusten dituen emozioak eta beharrak lantzeko balio baitu. Gainera, argitalpenaren orrietan familientzako jarraibide erraz batzuk ere jasotzen dira, Gabonetan hain ohikoa den mugimendu emozionalari begira.

Taupadaketik lantzen diren proiektuetan ohikoa den bezala, prozesu osoa tokiko eragileekin egiten saiatu dira. Horretarako, argitalpenaren ilustrazioak eta maketazioa egin dituen Alfredo León Mañú sortzaile grafikoaren laguntza izan dute.

Joan den abenduaren 11n, Olentzeroren inguruko ipuin xume honen aurkezpenera egin zen Liburutegi Publikoan, txikiaren begirada magikoaren aurrean.

ERA Eskolaren 3. Edizioa



Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak eta Nafarroako zenbait toki erakundek, tartean Agoizko Udalak, 2020an abiatu zuten Era Eskola, Guraso Eskola proiektua, ikastetxean euskara ikasten duten haurren familiei zuzendua. Hirugarren urtez, hiru adituk hazkuntzari, euskarari eta hezkuntzari eragiten dieten edukiak jorratu dituzte. Zehazki, edizio honetan hainbat gai jorratu dira, hala nola euskarazko

eskolatzearen kulturartekotasuna, euskara nola sustatu nerabezarorako trantsizioan eta gurasoen hizkuntza-portaeren eredugarritasuna. Kike Amonarriz, Amelia Barquín eta Nerea Permach eman dituzte saioak. Edukiak online eskaini dira, euskaraz eta gaztelaniaz, euskaraz dakiten zein ez dakitenei informazio egokitua emateko. Gainera, era.eus-eko YouTube kanalean argitaratuta daude. Era Eskolako saio horiek interaktiboak dira, eta, beraz, nahi duen publikoak kontsultak eta iruzkinak egin ditzake YouTube kanaleko hitzaldien bideoetan, eta

Euskarabideko edo toki-erakundeetako euskara-zerbitzuetako teknikariak arduratuko dira horiei erantzuteaz.

INFORMAZIOA ETA BALIABIDEAK. www.eranafarroa.eus webgunea toki entitateetako euskara zerbitzuek sortu dute eta Nafarroako Gobernuak finantzatzen du, Euskarabidearen bitartez. Informazioa eta baliabideak eskaintzen dizkie ikastetxean euskara ikasten duten 12 urte arteko haurrak dituzten familiei, euskara ikasteko prozesua osatu eta indartzeko helburuarekin.

Gabonetako balantzea



Gabonetako jardueren programazioan musikak, hainbat formatutan, izan zuen protagonismoaren zati handi bat. Agoizko Musika Eskolak bere ohiko Gabonetako kontzertua eskaini zuen Kultur Etxean. Ekitaldi horrek, berriz ere, auditorioaren edukiera osatu zuen. Era berean, eta arrakasta handiz, Agoizko Musika Bandaren Gabonetako kontzertuez gozatu genuen, Agoizko auditorioan ere, eta Agoizko San Migel Abesbatzarena, Hiribilduko elizan egin zena.

Kultur Etxean ospatu zen San Miguel Ikastetxearen urte amaierako festa, eta Olentzerok bisita berezia egin zien haur eskolako txikienei.

Beste urte batez, Udaleko kultura



arloak Patxi Huartek ematen duen euskarazko arte plastikoen ikastaroa antolatu zuen, «Eguberrietan plastikatzen», eta 5 eta 12 urte bitarteko haurrei eskainitako plaza guztiak bete zituen, eta hiru talde osatu ziren.

Gabonetan antzerkia iritsi zen herrira magia ikuskizunean. Familia osoak gozatu ahal izan zuen "Gabonak Magikoak" ikuskizun dibertigarriaz. Eta Gabonetako oporrak amaituta, urtarrilaren 7an, igandea, "Mari Pompas" xaboi-burbuilez eta fantasiazko eta ilusiozko burbuilez bete zen Kultur Etxeko entzutegian.

Eguberrietako programazioan ere jasota zegoen moduan, Bilaketa Ahots eta Instrumental Taldeak herrian zehar Jaiotzagileen Elkarteak kokatutako jaiotzak ikusteko ibilbidea egin zuen. Eta ekitaldi nagusiak izan ziren, nola ez, Olentzero eta Maridomingiren iritsiera, Ekialdeko Maiesteen morroiaren harrera eta Errege Magoen kabalgata.

2.500 parte-hartzaile LEB jaialdiaren 1. Edizioan



LEB - Hizkuntza Eszeniko Berrien Nazioarteko Jaialdiaren lehen edizioa Agoitzen egin zen abenduaren 1etik 9ra, eta 2.500 parte-hartzaile izan zituen, jaialdiaren zuzendaritzak aurreikusitako aurreikuspen onenak gaindituta.

Asier Andueza jaialdiko zuzendariak egin zuen hasirako balantzean, aretoetara iritsi zen publikoaren erantzunarekin pozik zegoela nabarmendu zuen. Evangelos Lalos zuzendari greziarraren Maricón, Valladolideko Alberto Velasco zuzendariaren Sweet Dreams eta Iñigo Santacana donostiarren Juicio al Extranjero lanek goia jo zuten entzutegiaren edukierak,

Kultur balantzea

Abenduan, nahiz eta programatutako jarduera gehienak Gabonetako ospakizunekin LEB Jaialdiaren programazioarekin lotutakoak izan, lekua izan zuten ere beste ekitaldi batzuek, Agoizko Hiria XVIII. Argazki Lehiaketaren erakusketa, esaterako. Kultur Etxeko Areto Handian izan zen erakusketa, eta bertan ikusgai egon ziren lehiaketara aurkeztutako lanak. Erakusketa horren inaugurazioak, gainera, bi irabazleei sariak emateko bide eman zuen: Ángel Benito Zapatak jaso zuen Sari Orokorra, eta Herriko Saria, berriz, Edurne Mañú Aristuren eskuetara joan zen.

eta gogo bizia piztu zuten ikusleen artean. Antzeko zerbait gertatu zen Irati herriko antzerki taldearen emanaldiekin, bertaratzea aurreikusitakoa baino hiru aldiz handiagoa izan baitzen.

Jaialdian, hautestontzi bat jarri zen, eta, bertan, ikusleek, nahi izanez gero, ikusi berri zuten ikuskizuna baloratu ahal zuten, modu errazean, semaforo baten kolore-kodeak erabiliz. Botoen % 81,46 berdeak izan ziren, % 9,72 laranja eta % 8,82 gorriak. Harrera ona izan zuen LEB Legearen programazio askotarikoak. Lehen edizioan, antzerkia, dantza, performance artistikoak,

tailerrak, prestakuntza-ikastaroak, tokiko kolektiboekiko bitartekaritza-ekintzak, erakusketa bat, eztabaida-foroak eta kontraste-foro bat izan ziren.

Gainera, antolatzaileek ikusleen fidelotasuna nabarmendu zuten, ikuskizunetan egonkor egon direlako. "Ikusleen eta jaialdiaren arteko identifikazio hori oso zaila izan zen ingurune handiagobatean. Agoitzek oso azkar sortu ahal izan du komunitatea", adierazi zuten.

Bide beretik jo zuen Agoizko Udalak, eta egun horietan sortutako giro ona azpimarratu zuen.

